

IRITZIA

Mari Angeles
Expósito

GEHIGARRIA

Etxe apainketari
buruz jakin
beharreko guztia

BERBETAN

Jose Luis Niebla,
Altzolako jaien
antolatzailea

KIROLA

Nahaste-Borraste

KULTURA

KOKO Eren komiki
erakusketa

BARRREN

1997ko ekainaren 20a
V. urtea - 199. zkia.

E L G O

K A R I A



Bizikleta, zakua, saltaka
Hau da Nahaste-Borrastea!

“Garrantzitsuena ez da irabaztea, parte hartzea bai zik” Herrikoia

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK SALGAI



*Etxebizitza bakarra
gelditzen zaigu*

**EZ GALDU
AUKERA HAU!**

**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:
20 83 16**

ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*%10eko
deskontua*





MARIA ANGELES
EXPÓSITO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Oporrak nekazal-turismoan

Ingande batean, besteetan bezala, banindoan mendian zehar Euskal Herriak duen edertasunaz gozatzen. Zenbat aurkera eskaintzen dituen!! Zenbat ibar eder!! Zenbat muin zoragarri!! Zenbat berde eta freskotasun!! Zenbat baserri polit eta eder!! (hondar batzuk ikusten diren arren). Pasiarak ez ezik, udako oporrak igarotzeko leku aproposak ere badira urrutira joan gabe.

Esan bezala, lasai asko egiten ari nintzen aukeratutako ibilbidea. Bihurgune bat igaro ondoren, lorez eta zuhaitzez inguratutik, berriztatutako baserri eder baterako bide xidor baten hasieran "AGROTURISMO" zioen txartel bat ikusi nuen, erdal grafiaz eta esanahiaz. Nire poza amorrazio bihurtu zen horrelakoak askotan ikusten direlako. Baina ez dira hemen bukatzen nire haserrea eta harridura. Etxe barrura sartzea erabaki nuen ea hangoak erdalduak ziren jakiteko. Etxeko andreak euskara ederrean agurtu ninduen nik egunon esan eta galdera batzuk egin eta gero. Berak era jatorrez azalpen batzuk eman ondoren, nik ederki apaindurik zegoen apalategi bateruntz zuzendu nituen begiak, eta Laiak, Uztarri, Eguzki-lorak eta Lauburuaren artean egurrez landutako hainbat kuadrotxotan ohar batzuk irakurri nituen

salgai zeuden produktuen adierazgarri, "Queso del País", "Miel de casa", "Pan de caserío", "Alubias de Tolosa", eta beste hau, "Si quieres dar un paseo a caballo in-formate aquí".

Euskaldunok Espainia aldera edo edonongo herrira goazenean eta hangoa erosi nahi izanez gero, ez ditugu salneurriak ezta izenak ere gure hizkuntzan aurkituko, baina erosi, erosten dugu. Eta guk zergatik? Ezin ote dugu gure baserriarren bizimodua hobetu gurea galdu gabe? Ezin ote diegu bisitariei guk daukaguna erakutsi, saltze eta ondo atenditze minimo horiek mantenduz? Ezin dugu Euskal Herria den bezala, bere hizkuntza, paisaia eta nortasuna aldatu gabe munduari erakutsi? Ezin dugu bizi besteena geuregin gabe?

"Ezin dugu Euskal Herria den bezala munduari erakutsi? Ezin dugu bizi besteena geuregin gabe?"

Iraultza industrialari eta etorkinei (beste gauza batzuen artean) zor omen diegu euskararen galera bortitza. Orain NEKAZAL-TURISMOAri esker galdu behar al ditugu gaur egunera arte euskara gordeleku izan direnak?

Penagarria eta salatze modukoa iruditzen zait egoera hau. Udako oporrak pasatzeko aukera hau egingo bagenu eta bertako produktuak erosi nahiko bagenu, izan dadila NEKAZAL-TURISMOA, AGROTURISMOA alde batera lagata.



laburpena: gure protagonistek lehendabiziko lagunak aurkitu dituzte eta euren eraldaketa tari ekingo diote...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi, Iban Urizar

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Gazte Asanbladak Elgoibarko herriari

Gazte Asanbladak Gaztetxearen gainean alkateak prentsurrekoan esandakoak zuzendu eta argitu nahi ditu, inor despistatuko balitz ere...

Ez da Udala izan, eta are gutxiago bertan jardun duen alkatea, lehenengo urratsa eman duena auzi honetan. 6 urte dira aurreko Gaztetxea bota zigutela eta beste hainbeste Gaztetxe berria lortu nahian lehenengo urratsak eman genituela guk, herri honetako gazteok eta ez beste inork. Ez gara, halere, bakar-bakarrik aritu. Badira hiru urte Gaztetxearen Aldeko Ekimean bildurik herriko zenbait kolektibok eta beste hainbat partikularrek Gaztetxearen alde Lehen Urratsa eman zutela, eta urte erdi okupazioaren inguruan GAKOA sortu zela. Alkatetza izan da herri honetan urrats hori ematen azkena.

Buru belarri sartu omen da gure alde apustu eginez. Ez orain eta gutxiago lehen, ez dugu alkatea gure alde inoiz ikusi, berarekin egon garenetan ez dugu inoiz ezer garbirik atera eta azkenaldiko elkarrizketetan oso urrun mantendu da.

Gaztetxea lorpen handia delakoan gaude, baina lorpen hau, izatekotan, helburu honen atzetik ibili garenona izango da, hau da, herri honetako gazteriarena. Ez gaude prest alkateari propaganda errazteko, ez baititugu ahazten Gaztetxerik gabeko urte guztiak. Alkateak kontu honen gainean ezer esan nahi badu, has dadila sei urte iraun duen hutsunearekin, denbora horretan jarrera berarekin jardun ondoren (tartean okupazio, detenitu eta bizkarrekoak ere izan direnean) ez baitakigu zergatik lehen ez eta orain, berriz, bai, Gaztetxea lortuko dugun. Ostantzean, badu beste aukerarik ere. Azkeneko sei hilabeteotan izan ditugun bileretan atzean mantendu den bezala, jarrai dezala horrelaxe, ari direnei utziz, jakinaren gainean baina batez ere, isilik.

Ez dadila hasi irabazi ez dituen medailak bere buruari jartzen. Ez dezala inoren bizkarretik propaganda egin. Eta ez dezala oraindik erabakitze daudenei buruz txintik esan. Izan ere, guk dakigula, Gaztetxean

egin beharreko lanak ezingo ditu Bide-Eginek egin, zehazteko dagoelarik zeinek egingo dituen, zehazteko dagoen bezala etorkizuneko Gaztetxe berriaren kokapena.

Besterik gabe, Gaztetxearen aukera hor izango dugula dirudien honetan, dei zabala egiten diogu Elgoibarko gazteriari aukera hau galdu gabe, bere nahieran Gaztetxe hau eraiki eta aprobetxatzea etor dadin.

Gazte Asanblada

Zorionak Gazte Asanbladari

Elgoibarko Herri Batasunak Elgoibarko gazteria eta, batik bat Gazte Asanblada zoriondu nahi ditu. Gaztetxearen aldeko borroka luze honetan denetik ikusi dugu: Gaztetxearen derriboa, beltzak herria okupatzen, mobilizazio ugari, okupazioak, ertzainak argazki erakusketa apurtzen, jarrera itxiak udal agintarien aldetik,.... baina horien gainetik helburu garbi bat daukaten gazte batzuk; beraien borrokak, jarduerak, ekimenak egoera aldarazi du, esparru lokala, Gaztetxea, orain dela hilabete batzuk pentsaezaina zen egoera batean aurkitzen da.

Zorionak, beraz. Hemendik aurrera ere izango da zer eztabaidatu. Iritzi diferentek plazaratu eta defendituko dira baina, ziur gaude, orain arte erakutsi duzuen maila erakusten jarraituko duzuela.

Elgoibarko Herri Batasuna

Eskerrik asko Rino, Jose eta Angel-i

Urtean zehar gurekin egin duzuen lanarengatik eskerrak eman nahi dizkizuegu. Zuek bideratu dituzuen entrenamenduak ez dira kiroletan hobetzeko bakarrik izan, baita gure arteko harremanari alaitasun piska bat emateko ere. Zuei esker 6. mailako neska-mutil eta gurasoen arteko giroa jatorragoa da.

Beraz, gure eskerrik beroenak Dani Rino, Jose Peñaranda eta Angel Garteri. Etorkizunean horrela jarraitu.

Ikastolako 6. mailako neska-mutil eta gurasoak

GALDERAK

◆ Emakume batek deitu digu zera jakin nahi duela esateko: **“Elizako parkeko komun publikoak noiz zabaldu behar dituzte?”**

Jose Mari Oruesagasti Hirigintzaburuak esan digunez, **“joan den egunean alkatea eta biok komunak zein egoeratan dauden ikusten izan ginen eta, egia esateko, une honetan egoera kaxkarrean daude, orain dela denbora dexente, norbaitek apurtu**



egin zituelako. Halere, **konpontzeko erabakia hartu dugu eta irekitzeko asmoa daukagu.** Bide batez herritarrei eskatuko nieke dauzkagun komunak, Madalakoak esaterako, gehiago zaintzeko, astero-astero komunetan zerbait apurtuta agertzen delako”.

KEXAK

◆ Ume batzuek **Leku-Ederreko parkea** dena apurtuta eta pintadaz margotuta dagoela esatera etorri dira. Udalari apurtuta dagoena konpontzeko eskatu nahi diote.

TXALOAK

◆ Ikastolako ume batzuek **Ikastola txalotu** nahi dute joan den larunbatean antolatatu zuten Gurasoen jaia-erengatik.

◆ Futbol zaletu batek **Haundi taldea txalotu** nahi du play-off-ean ederki dabilatzalako. Animoak eman nahi dizkie jokalariei zapatu arratsaldean Mint-

xetan jokatuko duten partidua irabazi eta hartara, 2B mailara igo daitezen.

◆ Herri Eskolako 1. eta 2. mailako ikasle eta gurasoek **Leizarpe Espeleologia Taldekoak txalotu** nahi dituzte joan den asteburuan Milloiko kobazuloetara irteera polita egin zutelako beraiei esker.

BAI, ESAN?



Adelina González

HAIZEAko kidea

Aste honetan **Haizea Emakume Taldeko kide den Adelina González**-i deitu diogu. Jakingo duzuenez, Haizea Emakume Taldeak Udal Ongizate Sailarekin batera Emakumeari zuzenduriko Osasun zikloa antolatu du eta azken ekintzak aste honetan bertan izan dira. Izan ere, gaur, ostirala, antzerkia izango da Herriko Antzokian zikloari amaiera emateko. Ekintzok zer moduzko harrera izan duten jakin nahi izan dugu oraingoan.

- **Maiatza eta ekainean zehar hainbat hiltzadi antolatu dituzue emakumeari zuzenduak. Zer moduzko harre-
ra izan dute?** - Udal Ongizate Sailarekin batera antolatu ditugun ekintzen harrera ona izan da eta guk espero genuen erantzuna izan du. Herriko emakumeak hitzaldietara etorri dira, interesa erakutsi dute bai eta parte hartu ere.

- **Zergatik izan da osasuna aukeratu duzuen gaia?** - Guztioi eragiten digun gaia delako. Informazioa emateaz gure helburua, prebentziorako biderik egokiena delako eta hartara, emakumeak bizi-kalitate hobea izango delako. Herrian zegoen behar bati erantzun diogula uste dugu: osasuna prebentzioaren ikuspuntutik ikusita. Datozen hilabetei begira, ekologia, autoestimari buruzko ikastaroa, garapen pertsonala, zine forum-ak eta herriko kultur elkarrekin kolaborazioak egiteko asmoa dugu. Halere, Emakunde elkartetik eta beste erakunde batzuetatik jasoko ditugun diru laguntzen esku dago zerbait antolatzea.

- **Haizea Emakume Taldea duela urtebete inguru sortu zen. Zer nolako harrera izan du taldeak?** - Emakumeen sektore baten beharrei erantzun diegula uste dugu eta emakumeen talde baten beharra zegoen iritzikoak gara. Antolatu ditugun ekintzek izan duten erantzun onak lanean jarraitzeko kemena ematen digu. Haizea 19 bazkideek sortu zuten eta gaur egun 35 gara. Bazkideez aparte, animoak eta aurrera jarraitzeko animatzen gaituzten kolaboratzaile ugari ditugu.



*Ekainaren 10ean, 87 urte zituela, hil zen
JOSE MARI ANSOLA GOENAGAren sendiak
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



● Ikastola eta Herri Eskola, Osasunkume programan sarituak

“Osasunkume, Bizitzaren Abentura” drogomenpekotasunen prebentziorako programa da. Elgoibarko ikastetxeak aspaldi ari dira parte hartzen eta Ikastola eta Herri Eskolakoek egindako lanak saritu dituzte. Ikastolako 4. mailako eta 5B mailako ikasleek egindako lanak eta Herri Eskolako 3. mailakoek egindakoak nabarmendu dira. Sari banaketa Osasunkumeren jai handian egingo da, igandean, hilak 22, Gasteizen.

● Gabonetako jaiotza prestatzeko bolondres eskaria

Gabonetako jaiotza prestatzen duen batzordeak prentsa ohar bat bidali digu BARRERera Gabonetako jaiotza prestatzeko bolondres edo boluntarioak eskatuz. Izan ere, batzordean jendea behar da irudi berriak egin eta jaiotzaren gainontzeko elementuak antolatzen. Laguntzeko prest daudenek Udaltzaingora joan behar dute eta bertan hartuko dizkiote izen-abizenak.

● Udako ikastaroak Herri Institutuan

Herri Institutuak bi ikastaro antolatu ditu uztailean ikasleentzat. Ikastaro bat informatikako Word/Power Point programei buruzkoa izango da eta bigarrena mekanografia audiobisualari buruzkoa. Izena emateko Mekanikako bulegoan abisua eman edo 74 44 80ra deitu.

PNVko Madrileko ordezkariak Ekain II proiektua ezagutzeko bisita egin zuten

Iñaki Anasagasti, Joxe Juan González de Txabarri, Madrileko Kongresuko PNV/EAJko diputatuak eta Xabier Albistur eta Joseba Zubia PNVko senatuko ordezkariak Elgoibarren izan ziren joan den ostiral eguerdian Ekain II proiektuaren berri izateko. Guillermo Garate alkateak, PNVko zinegotziak eta Mendaroko zinegotziak egin zieten harrera diputatuei. Ekaingo kobazuloen erreproduzioen proiektua diseinatu duen injineruak zertan datzan proiektua azaldu zien diputatuei. Zes-

toako Udalak bere herrian beste erreproduzio bat egiteko duen asmoaren inguruan, González de Txabarri diputatuak “Euskal Herrian gauzak bi aldiz egitera ohituta gaudela” adierazi zuen. Udala, Aldundia eta Jaurilaritza proiektu bateratu bat egiteko ados jarri behar direla gaineratu zuen PNVko ordezkariak. Argi utzi zuen Ekaingo proiektuak bakarra izan behar duela eta Madrileko parlamentuan euren esku dagoen guztia egingo dutela proiektu horrek behar duen laguntza ekonomi-

koa lortzeko. Deba Beheko Udalek egindako proiektua ez ezik, Zestoakoa ere ezagutzeko asmoa zutela esan zuten diputatuek. Elgoibarko Udaletxetik Debarantz abiatu ziren erreproduzioen maketa ikusteko Deba, Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko alkateek lagunduta.



Zuhaitz Gurrutxaga futbolaria izan zen sanmigeldarren eguneko protagonista

Joan den igandean giro ezin hobean eta Jeguraldi aparta lagun zela ospatu zen Sanmigeldarren Eguna. Goizean meza eman zuen Benantzio parrokoak eta Zuhaitz Gurrutxaga futbolari gaztearen omenezko eguna zenez, sermoia futbolaren inguruan egin zuen parrokoak. Segidan

Murkaikupe Pilota txapelketaren azken partidua jokatu zuten Loiola IV.a eta Loiola III.a osaba-ilobak. Loiola IV.a gogor hasi bazen ere, azkenean iloba nagusitu zen 22 eta 17 irabaziz. Liga modura jokatu den txapelketan 8 lagunek hartu dute parte gutira. Bazkarian 130 bat lagun elkartu ziren eta Zuhaitz Gurrutxagari omenalditxo eskaini zioten. Sanmigeldarrak “ambiente” handikoak diren ospari eutsiz, arratsaldean dantza ugari egin zutela jakin dugu. Eguna eguzkipean eta giro ezin hobean amaitu zutela ere jakin dugu.

Auzoko gazteek antolatutako ibilaldirako egin zuten otarraren zozketan 497 zenbakia suertatu zen saritua eta beronen jabea Bigoin baserriko Ignacio Egaña da.



DV



250 dantzari euskal dantzen jaialdian

Euskal dantzen erakuslekua bihurtu zen joan den ostiral ilun-tzean Plaza Handia. Izan ere, Inazio Bereziartua Musikeskolako dantza eskolako ikasleek, 250 bat ikasle guztira, ikasturte amaierako euskal dantzen jaialdia egin zuten. Hegoaldeko euskal dantza tradizionalak eskaini zituzten bertan bildu zen ikuslegoaren aurrean: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroakoak, hain zuzen.



Pilar ikastetxeko 6. mailakoak Plentzian


Pilarreko 6. mailako 30 neska-mutil 12 egun pasatzen egon dira Plentziako barnetegian, maiatzaren 19tik 30era bitartean, hain zuzen. Gorlizko itsasargia, Gernika, Bermeo, Deia egunkaria eta beste bisitaldi batzuk ere egin dituzte egun horietan zehar. Euskaraz bizi izatea da barnetegiko egonaldia-aren helburua eta euren esanetan, “ongi baino hobeto lortu dutenez, diploma eman zaie”. Ikasturte honetan ematen zaien bigarrena da eta guztira 16 taldek jaso dute diploma.



● Argazkigintza ikastaroa

Ongarri Argazki Taldeak oinarrizko argazkilaritzari buruzko ikastaroa antolatu du bereziki gazteei zuzendua. Ekainaren 30ean hasiko da eta uztailaren 18an amaituko. Gorka Salmerón argazkilaria legazpiarraren eskutik, 1996ko Imajina Ezazu Euskadi sariaren irabazlea izan zena, irudiari buruzko oinarrizko printzipio teknikoak irakatsiko dira klase praktiko-koen bidez. Praktikak goizez (10:00-13:00) zein arratsaldez (18:00-21:00) izango dira Ongarriko lekalean eta teorikoak Kultur Etxean. Taldeak 12 lagunekoak izango dira gehienez, eta izena ematen duten lagunen kopuruaren arabera talde ezberdinak egingo dira.

Ikastaroaren zenbatekoa 6.000 pta.koa da eta 5.000 pta.koa Ongarriko bazkideentzat. Apuntatzeko Kultur Etxera deitu (74 21 58) edo Ongarri (Hugo, 74 25 00 edo Jose 70 02 11).



Gurasoen Eguna Ikastolan

Larunbat goiza euritsua esnatu bazen ere, Ikastolan 400 bat lagun bildu ziren Gurasoen Eguna umore ezin hobean errenditzeko asmotan. Guraso eta ikasleen arteko goizeko jolasak pistan egin beharrean frontoian egin zituzten. Haurrek ere euren jolasgunea izan zuten ikastola barruan. Bazkaria goiko jolaslekuan egin zen eta guztira 260 bazkari banatu ziren. Ikastolakoek esan digutenez, aurtengoa laugarren Guraso Eguna izan da eta argi ikusten da finkatzen doan jaia dela, urtero dedikazio handiagoa eskatzen baitu antolakuntza aldetik.

Ikasturte amaiera IMHko moduluetan

IMHko modulu-etak ikasturte amaierako diplomak asteazken arratsaldean banatu ziren guraso, irakasle, ikasle eta enpresa ezberdinetako arduradunen partehartzearekin. Ikasturtea hasi zuten 82 ikasletik, 78k bukatu dute. Fabrikazio Mekaniko eta Delineazio Industrialean %100ak gainditu du eta Makina Automatiko-koen Mantenuan %85ak. Argazkian talde bat agertzen da Alberto Ortueta ARMko zuzendaria eta Guillermo Garate alkatearekin batera.

● **Barnetegietara joateko Udalaren dirulaguntzak**

Barnetegian euskara ikasteak dakarren gas-tua kontuan izanik, El-goibarko Udalak dirulaguntzak ematen ditu ikasle eta langabetuen-tzat. Barnetegiko ego-naldiaren gastu osoaren %40a (gehienez 30.000 pta.) ordaintzeko laguntza izan ohi da. Dirulaguntza jaso nahi duenak Udal Euskara Zerbitzura jo dezake edo 74 43 66ra deitu.

● **Kirol guneen erabilerari buruzko arauak**

Udal Kirol Patronatuak kirol instalakuntzen erabilerari buruzko arauak onartu zituen maiatzaren 26an. Araudiak bazkideen, erabiltzaileen, eskolen eta kirol elkarten eskubide eta betebeharrak zehazten ditu. Era berean, gimnasioak, igerilekuak, futbol zelaia, ro-kodromoa, atletismo pista, sauna eta bestelako instalakuntzak nola erabili behar diren aipatzen da. Gipuzkoako buletinean argitaratu eta 30 eguneko epea dago jendeak arauak irakurri eta alegazioak egiteko.

Artetxeko auzotarrek alegazioak jarri dizkiote Urruzunoko etxeen proiektuari

Udaletik informaziorik ez zaiela heldu salatu dute

Joan den ostiral iluntzean Artetxe, Pedro Muguruza, Iñiguez de Karkizano eta San Pedroko etxeetako Auzotarren Batzordeak prentsaurrekoa eman zuen Urruzunoko proiektuaren inguruan batzordeak duen jarrera azaltzeko asmoz. 12 bat kidez osatutako batzordearen ustetan, "Urruzunoko proiektuak auzoak dituen arazoei ez die koponbiderik eskaintzen; are gehiago, konpondu baino, txartu egiten ditu".

Melitonetik San Rokeraino egingo den errepidearen aurka daude auzotarrak, besteak beste. "13 metroko zabalera izan behar duela dio proiektuak eta Iñiguez de Karkizano parean, 10,40 metro baino ez daude". Batzordekideen esanetan, errepidea Karkizanoko etxeen ondo-ondoan geratuko da. "Honez gain, kontuan izan behar da beheko solairuetan etxebizitzak daudela. Proiektuan esaten da auzoak intimitate eskasa duela. Errepidea herriko bigarrena izateko diseinatu da, San Rokeretik Donostialdera doazen autoei irteera emateko. Trafikoa izugarria izango da, hortaz, akabo gure intimitatea".

Oinezkoen bideei dagokienean, "proiektuan ez dago bat bera ere". Ikastolako sarrera eta Melitongo tunela dira sarrera bakarrak eta azerak %8 eta 10 birtarteko desnibela izango du. "Horrela izanik, Iñiguez de Karkizano kalea isolaturik geratuko da". Auzotarren Batzordea Babes Ofizialeko etxeak egitearen al-

de agertu zen, baina "kalitatezkoak izatea nahi dugu. Proiektuaren 35. orrian esaten da etxebizitzak 'prekarioak' direla, iparraldera begira daudelako, autopista, trenbidea eta errepideaz inguratuta daudelako, etab."

Auzoak duen sobredimentsioa kontuan hartuz, "inguruari beste kutsu urbanistikoa ematea eskatzen dugu. Era berean, Udalak legez jokatu ez duen ustea dugu, plan partziala arau subsidiarioak baino lehen onartu baitzen".

Udalak informazio partziala eman duela salatu zuten batzordekideek, "hasieran errepidea egingo zela zioten, gero ezetz, gero berri baietz. Gure ustez inizatiba pribatuko etxeak eraikitzeke diseinatu dago proiektua eta legeak agintzen duela, halamoduz eta beste ezer aintzat hartu gabe, bertan sartu dituzte Babes Ofizialeko etxeak". Batzordekideen esanetan, "proiektuak zuzenean eragiten digu eta Udalak ez digu proiektuaren berri eman ezta alegazioak aurkezteko aukerarik zegoenik jakitera eman ere. Informazio guztia iturri ez ofizialetatik lortu dugu".



Parkea dagoen lekutik pasatuko da errepidea.

**OLASO
TABERNA**

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

?EGUNEKO MENUAK?

?LARUNBATETAN?

Rabak ¥ Olagarroa ¥ Fritoak

?GAUEZ?

Menu ekonomikoak eta plater konbinatuak

¥ Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...

¥ Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA
INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00tik aurrera

23 urte dituen gazte hau altzolatarrak da. Joan den astean hasita jaietan daude altzolatarrak, San Juan jaietan. Aste honetan mahai baten bueltan eseri gara Jose Luisekin, bera baita jaien batzorde antolatzailean geratzen den bakarra. Suen inguruko festa xelebreak dituen auzoari buruz hamaika kontu esan dizkigu berak. Hona hemen asteburuan ederki pasatzeko zenbait pista.

JOSE LUIS NIEBLA

"San Juan jaiak bizitza ematen diote Altzolari"

– **Aurten bakarrik geratu zara jaiak antolatzeko.**

- Bai. Hiruzpalau urte daramatzat batzorde antolatzailean baina aurten jende-ari beste zeregin batzuk at-erra zaizkio eta, denera iritsi ezin denez, neu geratu naiz guztiaren arduradun. Halere, beste urteetan ibilitakoen laguntza osoa daukat.

– **Jai luzeak dituzue.**

- Bai. 15ean hasi ziren eta 20, 21, 22, 23, 24 eta 25era arte luzatzen da. Egia esan, auzo txikia gara eta jende gutxi bizi da baina jaien bidez bizitza piska bat ematen saiatzen gara.

– **Altzolarrok beti egon zarete harro auzoaz.**

- Egia da. Gaur egun ez dago garai batean bezala Bainuetxe famaturik, ez eta jendez gainezka dagoen kalerik ere. Altzola oso auzo lasaia da, eta bertakook elkar ezagutzen dugu. Gainera, gazteok badugu gure lokala elkartu eta gure ekintzak au-

rrera eramateko. Ni oso gustura bizi naiz Altzolan.

– **Zein aurrekontu duzue?**

- Udalak 550.000 pta. eman dizkigu.

– **Jai bereziak dituzue, zuenak diren ezaugarriekin. Kontaiguzu.**

- Esate baterako, sardina erreen eguna oso polita izaten da. Sardinak erosten ditugu eta Pakoren jatetxeko parrilan erretzen. Hurreratzten diren guztien artean banatzen dira. Oso giro polita sortzen da. Duela hiru urtetatik mus txapelketa antolatzen dugu, berbenarik ere ez da falta izaten...

– **Erratzaren dantza deitzen dena ere egiten duzue. Zer da hori?**

- Berbena gauean bikoteka ateratzen gara dantzara. Musika taldeak abestiren bat jotzen du eta bitartean, bikote batetik bestera erratza pasatzen da. Taldeak jotzeari uzten dihonean, erratza eskuan duen bikotea eliminatu

egiten da. Azkena geratzen den bikoteak irabazten du.

– **Beste ekintza berezi bat: pinuarena.**

- Bai, urte asko dituen ohitura da. Erreka ondora joaten gara eta bertan pinu bat aukeratu eta moztu egiten dugu. Sokekin lotu eta frontoira eramaten dugu. Frontoi inguruan zulo bat egin eta bertan birlandatzen dugu. 15-20 egunetara botatzen dugu berriz.

– **Lan nekeza al da?**

- Kostatzen da, bai. Pinuak pisu handia du eta ez da erraza izaten hura tente jarzea. Baina ohitura polita da.

– **Zein da ekintzarik politena?**

- Politena edo behintzat jaietako esanguratsuenak, suak dira. San Juanak surik gabe ez lirakeke gauza berdina izango. Giro polita sortzen da.

– **Ekintzetan ibiltzen al da jenderik?**

- Bai, auzotarrez gain Elgoibartik ere etortzen da jendea. Egia da jende gehiagorekin beharbada hobe geratuko lirakekeela, jenderik gabeko jaiak tristeak baitira. Baina Altzolakoak ondo daude.

– **Antolatzaileak izaten al du denborarik disfrutatzeko?**

- Egia esan, asko erretzen zaitu guztiaren ardura izateak. Ekintza guztietan egon behar naiz. Hurrentzat ere gin-kana antolatzen dugu, pilota partiduak daude... Eta azkenean ia ez duzu astirik hartzen zuretzat. Baina, tira, auzoak jaiak behar ditu. Halere, jende-ari esango nioke antolatze lanetan parte har dezala. Pena bat izango litzateke jaiak galtzea inor ez dagoelako antolatzeko.

BESTEAK ESANA

“Eskertzekoa da honelako gazte jendeak erreleboa hartzea jaien antolakuntzan”

ALBERTO GARCÍA, Altzolako auzokidea





Felicitas Arriola Arregi (1907-1962)



Badakigu jakin, mila erako zaletasunak daudela. Zaletasun gehienak, gorputz fisikoa lantzen duten horietakoak izan ohi dira eta gaur egun “hobby” ere deitzen diegu. Gorputz fisikoa esan dugu, baina, burua nekatur gozatzan dutenak ere badira. Hauena ere “hobby” esan beharko dugu. Gainera zenbait badu meritua ere.

Bestela begira honoko honi: bere betiko bizibidea armagintza. Batez ere su-izkulu edo eskopetagitza. Eguneroko lan arruntaz gain, bere “hobby”a edo zaletasuna XVIII. gizaldiko eta euskaldunak bale-arrantzarako zituzten itsasontzien ikerketa lana du.

Gaur egun eta, gai honi buruz oso iaioa delarik, Donostiako Akuarim-eko baztordekoa ere bada.

Txikitatik Elgoibarrera etorri, hazi eta bizi den pertsonaia hau nor ote da?

Testua: **Felix Etxeberria**
“Parapan”

Erantzuna badakizu, ekarri **BARRE**na.

- 1907ko azaroaren 23an jaio zen Elgoibarren.
- 14 anai-arreba izan ziren, bi amarekin. Berau zazpigarrena zen.
- Eskola publikoetan ibili eta tarteetan abarketak josten zituzten. 12 urterekin Alkortako telarean lanean hasi eta urteetan aritu zen.
- Jose Urbietarekin ezkondu zen 24 urterekin eta 6 seme-alaba izan zituzten. Felicitasek abarketak josten jarraitu zuen.
- 1936ko gerratean denboraldi gogorra pasatzea tokatu zitzaion, Santillana del Mar-en Donostiarako barkoa hartu zuen eta Elgoibarrera itzuli zen. Gizonak 3 urte pasa egin zituen Puerto de Santa Mariako gartzelan eta Donostiakoan.
- Felicitasek lehengo lanekin jarraitu zuen, tela eta horrelako gauzak saltzen, bizimodua hala nola aurrera atarez.
- Familia elkartua, denak joaten ziren saltzera herriko eta erbesteko makina bat lekutara, kaleak eta baserriak pasatuz.
- Felicitasen aita, Laugarin, otargile famatua izan zen Elgoibarren.
- Senarrak Sigman eta Eibarko Telleria lantegian egin zuen lan. Geroago frutadenda ireki zuten eta bertan egin zuen lan Felicitasek.
- Emakume sufrituia izan zen, herrian ezaguna, borondatezkoa eta sinesmenduna.
- Jostea eta sukaldaritza atsegin zituen.
- Sasoi onean zegoela, tronbosi baten ondorioz hil zen 1962ko uztailaren 15ean 55 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Nor ote da?

Joan den asteko “Nor ote da?” lehiaketaren erantzuna **Jabier Arriola** “Arriola IV” da. Asmatu dutenak Ana Maria Mugerza Oria eta Idoia Uriarte Mugerza dira.



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

ULATZ, S.I.
SUKALDE ETA KOMUNERAKO
ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 74 38 44



Aste honetako erretratua **Pedro Cornejok** laga digu. 67-68 denboraldian Rayo San Pedrok Debako Gau-Txori taldeari hondartzako txapelketan kopa irabazi zioneko da argazkia. Jokalari elgoibartarrak Debako hondartzan daude

ekainaren 29an, hain zuzen.

Taldeakideak hauexek dira: atzean, ezkerretik eskumara: **Juan Martin Molins, Antonio Martin Molins, Pedro Cornejo, Enrike García, Gregorio Sains, Faustino Pascual, Pascual Molina** eta **Victor Baños** (†).

Makurtuta: **Ismael Marinero, Joaquin Acosta, Angel Ruiz, Vicente Sains** (†) eta **Juan Leal**.

KEMEN Belardenda



Estuasuna, antsietatea, depresioa, lo ezina, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!

NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practificioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI - Osatze naturalaren USUI sistema

San Bartolome 25 · Tel: 74 40 31 · ELGOIBAR

IKASLEENTZAT EUSKARA IKASTARO-



- Mintzamina eta idazmena
 - Euskara mintzatua eta idatziaren hobekuntzarako klaseak
 - Errekuperazioak
- KLASEAK UZTAILEAN (GOIZEZ)

AEK EUSKALTEGIA

Plaza txikia, 3 - Tel: 74 13 32
Izen ematea EKAINAREN 26ra arte

Nahaste-Borrastearen 13. edizioa izango da bihar, hilak 21

Bihar, hilak 21, 13. Nahaste-Borraste izango da eguerdiko ordu batean hasita. Kimetz elkarteak antolatzen duen 10. lasterketa da, aurreko hiru edizioak 40. hamarkadan egin baitziren. Bi kategoria ezberdin egongo dira: bat alebin eta infantilentzat eta bestea, kadete, jubenil, nagusi eta beteranoentzat.

Eguerdiko ordu batean Kimetz elkartetik 14 urtetik beherakoek lasterketari hasiera emango zaio. Ordu erdi beranduago, hau da, ordubata eta

erdietan, nagusien lasterketaren txanda izango da. Korrikalari guztiek aseguruia izango dute eta behar-beharrezkoa izango da txirindularitza lasterketan kaskoa jantzita eramatea. Lasterketaren ostean bazkaria eskainiko zaie partehartzaile guztiei. Aurtengoa hamargarren Nahaste-Borrastea dela-eta, Kimetz elkarteak zerbait berezia egin nahi izan du. Horretarako "Nahaste-Borraste, Iriondo Kirolak" izenarekin kamiseta atera du eta korrikalari guztiei bana oparituko zaie.

Ibilbidea (14 urtetik beherakoak)

- Bizikletaz (4,8 km): Sigmako zubitik San Antolinera, Karkizano, Madala, San Frantzisko., Errosario eta Plaza Handia.
- 10 kiloko zakuaz (neskek 5 kilokoaz) (0,5 km): Plaza, San Bartolome, Errosario eta Plaza.
- Saltaka (1 km): San Bartolome, Ezenarro, San Frantzisko, Errosario eta Plaza.

Ibilbidea (Kadete, jubenil, nagusi eta beteranoak)

- Bizikletaz (7,2 km): Kimetz, San Antolin, Karkizano, Madala, Ibarrenea, Ibar-Txiki, IMH, Erretxindi, Trenbide kalea, P. M. Urruzuno, San Frantzisko, Errosario eta Plaza.
- 25 kiloko zakuaz (0,5 km): San Bartolome, Errosario eta Plaza.
- Saltaka (1,4 km): Santa Ana, Trenbide kalea, P. M. Urruzuno, San Frantzisko, Errosario eta Plaza.



Bizikletatik jaitsi eta zakuari egiten diote kolpe partehartzaileek. Zakuarekin korrika egitea oso astuna izaten da.

Ikastolako 6. mailako mutilak, txapelkunordeak eskubaloian

San Bartolome Ikastolako Ikas Otsoak eskubaloia taldeak Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuen Donostiako Karmelo Balda kiroldegian Zumaiako Maria eta Jose ikastetxeen kontra. Finalerdian 20 eta 4 irabazi zuten elgoibartarrek Andoaingo Leizarreta taldearen aurka baina, finalean, zumaiarrak izan ziren nagusi, elgoibartarrek 13 eta 10 galdu zutelarik. Jose Peñaranda eta Angel Garateren mutikoen halare, denboraldi ezin hobea egin dute.



Atzean ezkerretik hasita, Jose Peñaranda entrenatzailea, Mikel Lariz, Jon Aranzamendi, Eneko Aduriz, Xabi Peñaranda, Aitor Azkue eta Gorka Garate. Makurtuta, Ibon Oteiza, Aitor Gabilondo, Julen Ansola, Andoni Etxabe, Jon Ulibarri, Jon Irazabal, Haritz Arrieta eta Aitor Arrieta. Argazkian ez dago Angel Garate, beste entrenatzailea.

Menisco taldea izan da futbitoko Kopako irabazlea

Joan den igande goizean Menisco eta Spartak Braga taldeek Urсандiko Futbito Txapelketaren Kopako finala jokatu zuten. Bi taldeak nahiko parekatuak ari baziren ere, Spartak Braga aurreratu zen markagailuan. Azken minutuetan 3 eta 2 zihozazenean, Meniscok gola sartu eta 3na berdinduta amaitu zuten partidua. Bost minutuko bi prorroga jokatu zituzten baina azkenean penaltiak jaurti behar izan zituzten irabazlea nor izango zen erabakitzeko. Meniscok izan zuen zorte handiena eta beraientzat izan zen Kopa.

Ligako finala, zapatuan

Karkis eta Orbela taldeen artean jokatu behar zen finala atzeratu egin behar izan zuten antolatzaileek Orbela taldekoek finalera ez aurkeztea erabaki baitzuten. Joan den igandean zen jokatzekoa partidua. Karkis-ekoak areriorik gabe geratu direnez, hirugarren eta laugarren postuetan sailkatzeko partidutik aterako da finalean arituko den taldearen izena. Pasa den ostegun iluntzean izan zen hirugarren eta laugarren



Menisco taldea izan da Kopako txapelketaren irabazlea.



Spartak de Bragako taldekoek penaltietan kopa eskuratzeko aukera galdu zuten.

postuetarako norgehiagoka. Sanpedrotarrak edo Berrogei Duro taldea, bietako bat izango da Ligako finala jokatuko duena.

K I R O L A L B I S T E A K

● Autodefentsa ikastaroa emakumeentzat

Udal Kirol Patronatuak eta Olaizaga Karate Taldeak emakumeei zuzenduriko autodefentsa ikastaroa antolatu dute. Hilaren 30etik utztailaren 23ra bitartean izango da ikastaroa Estatu mailako autodefentsa instruktore baten eskutik, astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 6:30etatik 8ak arte. Bazkideentzako prezioa 3.000 pta.koa da eta 4.600 pta.koa gainerakoentzat. Izena emateko Kiroldegira zuzendu.

● Ibai Elkarteko kirolariak taekwondoko txapelkunak

Josune Altuna Ibai Elkarteko taekwondo irakasleak Euskadiko txapelkun izateko lortu zuen Deustuko kiroldegian jokatu zen txapelketan. Bere ikaslea den Francisco Blancok hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Honako hau Ibai Kirol Elkartek Euskadiko taekwondo txapelketan parte hartzen duen lehen aldia da.

● Mintxetako futbol 7 txapelketa hasiko da asteartean

Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen Mintxetako Futbol 7ko txapelketako lehen partidua asteartean jokatuko dira. Guztira 46 taldek eman du izena. Gehienak elgoibartarrak dira baina kanpotarrak ere badaude.

EMAITZAK

Sigmako Pilota Txapelketa

Lendinez-Osoro 22/Perea-Arrillaga 15
Panizo-Julian 10/Karal-Katei 22
Olabe-Angel 10/Armatxa-Agirregomezkorta 22
Garate-Gerrika10/Txurruka-Leiaristi 22

Lagunak Pilota Txapelketa

Binaka:

Azpeitia 18 - Zaldibia 17
Lizartza 18 - Azpeitia B 9

Banaka:

Loiola 18 - Garai 9 (Benj.)
Iriondo 18 - Azpiazu 5 (Ale.)
Gasteain 18 - Membrillera 5 (Ale.)
Ubera 18 - E. Loiola (Inf.)

Futbitoa

Kopako finala

Menisco 4 - S. Braga 3

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 21

10:30 Ikastolako gurasoak - Ikasleak

Igandea, 22

17:00 Haundi - TropezDn

Futbol 7, Mintxetan

Asteartea, 24

10:30 Ikastolako gurasoak - Ikasleak

18:00 Potxokoak - Multiopicas Uzuri

Arkupe - Sex Simbols

19:00 La orden frantziskana - Waka

Zokoa - Vultur Gryphus

20:00 Debanda - Lojantxiris

Txiribindu - PeDa Alaitz

21:00 Akatu - TsunamiDs team

Wino - Xare taberna

Osteguna, 26

18:00 Malas Hierbas - Paotxa

P.S.K.- Ikus Optika

19:00 Nothingan Prisa - Itxistan

Fontaneria Astigarraga - La Inkisizion

20:00 Lagun Toki - Ere Bai

La Colina - Tomas Y Diez Mas

21:00 Karkis - Berrogei duro

Pedrusko - Aide Globun

Sigmako Pilota Txapelketa

Asteartea, 24

20:00 Olabe/Angel - Loiola/Lazarobeitia

Txurruka/Leiaristi - Armaxio/Agirregomez.

Osteguna, 26

20:00 Lendinez/Osoro - karal/Katey

Panizo/Julian - Ibartuzaea/lparragirre

Futbitoa, Kiroldegian

Larunbata, 21

18:00 Ligako finala

Lagunak Pilota Txapelketa,

Plaza Handian

Igandea, 22

11:00 Finalerdiak



RI 2L

Orain dela gutxi heldu zaigun berri tamalgari baten aurrean ezin dezakegu gure tristura eta atsekabea alde batera utzi musika munduan murgiltzen garenok behintzat. Izugarriko matrailekoa hartu genuen Jeff Buckley abeslariak utzi egin gintuela jakin genuenean.


Irakurri ditudan artikulu askotan beti komentatu izan ohi da noren semea den, non jaio zen eta beste hainbat datu, interesgarri?. Baina musikaren premia handiegia denez ez du axola Tim Buckleyren semea zen edo 30 urterekin utzi gaituela jakiteak. Garrantzitsuena, 1994an argitaratu zituen "Live at sin-e" (Ep 1994) eta "Grace" (LP 1994) ikaragarriak ditugu.

Azken hau entzuten sartzzen zaizun zirarra ezin daiteste hitzekin neurtu, belarriekin baizik. Ez pentsa zuek konbentzitzen ahaleginduko garenik diska hau entzun dezazuen, hori nor bere aukeran dago. Hamar abesti, hiru bertsiok (Leonard Cohen-en "Halleluyah") baina orokorrean aldaezinak, perfektuak,... biribilak. Ahots ikaragarri batek eta bere kitarrak rock goibela, mingotsa eta ukaezina marrazten duen heinean agur-tzen gara, malko bat belarritik erortzen zaigun bitartean.


Iban Urizar eta Julen II

Kokoe taldeko kideen ilustrazioak erakusketan ikusgai

Kokoe Komiki Elkarteko kideek erakusketa antolatu dute gaurtik hasita, hilaren 29ra bitartean. Kultur Etxeko erakusgelan Kokoeko kide diren zortzi artisten lanak ikusi ahal izango dira. Lanen artean komikiak, ilustrazioak, ordenagailuz nahiz arkatzez marraztutakoak, zuri-beltzekoak, koloretakoak,... era guztietako teknikaz baliatuz egindako lanak daude. Kokoe Komiki Elkartek bi urtetik behin egiten du erakusketa eta helburua taldekideek denbora horretan egindako lana erakustea izaten da. Erakusketako lanen egileak honako hauek dira: Antxon Alvarez, Iban Barrenetxea, Mikel Cornejo, A. Espiga, Joseba Otaegi, Iñaki Raigoso, Javi Santamaria eta Jesus Tadeo. Erakusketaren ordutegia: 19:00-21:00 astegunetan eta 12:00-14:00 jaiegunetan.



Kokoeko zortzi kideren lanak daude ikusgai.



azkue

Mikel Legorburu Haritz Dantzari Taldeko kidea da.

Mikel Legorburu bosgarren sailkatu da Euskadiko Aurrekulari Txapelketan

Mhilaren 7an Trintxerpeko frontoian izan zen Euskadiko Aurrekulari Txapelketan parte hartu zuen. Legorburu Elgoibarko ordezkari bakarra zen eta lortutako bosgarren postua ondo merezitakoa izan zen, txapelketa honetan oso maila altuko aurrekulariet hartzten baitute parte. Dantzari gehienak Donostialdekoak izan ohi dira eta gure inguruetan txapelketan parte hartzeko tradizio gutxi omen dago. Txapelketan 22 dantzari aritu ziren lehendabizi. Hauetatik 10 finalerako sailkatu ziren, tartean Mikel Legorburu. Azkenean bosgarren postua eskuratu zuen elgoibartarrak.



Andoni Mujika:

“Euskadiko orkestan jotzia aurrerapauso bat izango da”

Ezin zitekeen beste era batera izan. Andoni Mujikak etxean umetatik ikusi eta entzun izan du musika. Izan ere, bere aita Bandako zuzendariordea da, Txomin Mujika. Andonik 16 urte ditu eta 8 daramatza tronpa ikasten. Oso gazte hasi zen Elgoibar-ko Musika Bandan eta orain gutxi, Euskadiko Gazteen Orkestarako oposaketak atera ditu.

- Zure kasuan etxeko giroak asko eragingo zuen. - Bai. Gure aitxak gaztetan ez zuan aukeria izan musikatik bizitzeko eta beti saiatu izan da gu musikuak izaten. Etxian beti entzun izan deu musikia eta zazpi urte nitxuala hasi nitzan solfeuan.

- Zergatik aukeratu zenuen tronpa? - Gure etxera askotan etortzen zan Gustavo Barrenetxea eta berak tronpia jotzen dau. Hari ikusten nion eta neri ere asko gustatzen jatanez, 8 urte nitxuala hasi nitzan instrumentuakin.

- Donostiara joaten zinen. - Bai. El-

goibarren ez zaben ematen tronpa klasiak eta zela Gustavo Donostira juten zan ni ere hasi nitzan astian behin. Oso gustura juten nitzan, giro politxa zauan, tronpia asko gustatzen jatan eta Gustavo ere han zauan...

- Orain Madrilerara joaten zara. - Bai. Hilian pare bat aldiz edo juten naiz aitxakin. Eibarko tronpista batek jotzen dau han eta Gustavoren bitxartez eza-gutu naban. Ez naiz klase ofizialetara juten. Lagun bezela erakusten dia.

- Kontaiguzu nola izan den Euskadiko Gazteen Orkestaren kontua.

- Oposaketak atera zian eta aurkeztia erabaki naban. Ez naban pentsatzen hartu eingo nindutenik, batez ere oposaketak zelakuak dian ikusteko kuriosidadia nakan eta horregatik animau nitzan. 15 presentau ginan 4 plazatarako eta ni aukeratu ninduten. Sorpresa haundixa izan zan.

- Konpetentzia handia al dago?

- Egixa da gero eta gehixo bultzatzen dabela jendian artian musika ikastia eta

plazak berdina dia orkestetan. Horrek konpetentzia sortzen dau baina konpetentzia egoterakuan maila hobia da, jendia askoz gehixo saiatzen da eta.

- Noiz hasiko dituzue entsaioak?

- Udan hasiko gera entsaiuekin eta kontziertuekin. Leku askotan eman bihar ditzugu kontziertuak eta esperientzia politxa izango da. Gaztien Orkestia 16 eta 28 urteko musikuentzat da, ondiok urte asko daude aurretik.

- Musika Bandan hasi zinen, orain Gazteen Orkestan...

- Oso gustura nao. Gainera, ez da berdina zuk bakarrik jotzia edo beste musiko batzuen artian. Nere asmua musikatik bizitzia izango litzateke eta momentuz gauzak nahiko ondo ari jataz urtetzen. Oso zaila da baina saiatu ein bihar naiz. Euskadiko Orkestakua aurrerapauso bat izango da.

- Urte asko daramatzazu tronparekin. Ilusioarekin jarraitzen al duzu?


- Lehen baino gehixo. Txikitxan ixa ez dakizu zertan zabizen. Aitxak esaten dizu eta horregatik juten zera batez ere, nahiz eta gustau. Oin, en kanbio, askoz motibazio haundixaua dakat, badakit hau dala nik nahi dotena eta gainera jotzen ere beste maila bat daukazu, askoz aukera gehixo dakat edozer jotzeko.

- Nolakoa da tronparen soina?

- Izaera propioa duen instrumentua da eta beste guztiekin bezela, segun eta zela zauden, era batera edo bestera jotzen dozu. Neretzat tronpia jotzia deskonektatzeko erarik onena da. Horregatik, orkesta bateko tronpista profesionala izatia gustauko jatan.

- Juergarako zein musika mota gustatzen zaizu?

- Danetik gustatzen jata normalian, “bakalaoa” ezik. Bueno, igual juergarako noizian behin bakalao piskat ez dao gaizki baina etxian ez naban sekula entzungo. Horretarako nahixo dot “Pearl Jam”, “Smashing Pumpkins” edo holako talderen bat.





INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:

- Larrialdiak 461111
- Txanda hartzeko 743354
- Planning-a 742950
- Alkoholiko Anonimoak 740385
- D.Y.A (anbulantzia) 464622
- Gurutze Gorria 743864
- Mendaroko Ospitalea 756264
- Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak 740442
- PESA (Eibar) 902 10 12 10
- Taxi geltokia 740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua 744366
- Udal Kirol Patronatua 744415
- Kultura Zerbitzua 742158
- Mendaroko Udala 756100
- Ongizate zerbitzua 741008
- Udaletxea 741050
- Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra 741626
- Kiroldegia 744415
- Kontsumo Bulegoa 743088
- Liburutegia 743525
- Musika Eskola 742145
- Mintxeta 744315
- Parrokia 740842
- Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza 740296
- Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola 74 21 41
- Herri Eskola 74 08 79
- I.M.H. 74 41 32
- Herri Institutua
- Arreiturre 74 02 67
- Ezenarro (Meka) 74 44 80
- Ikastola 74 44 41
- L.H.I. 74 44 80
- Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN 74 41 12
- El Diario Vasco 74 40 73
- El Correo EspaDol 74 10 82
- Egin 10 84 21
- Zazpiki irratia 74 34 74

A G E N D A

20 ostirala

19:00 KOMIKI

ERAKUSKETA

Kultur Etxean
Antolatzailea: Kokoe
Komiki Elkarte
Hilaren 29ra arte

22:15 ANTZERKIA

Antzezlanak: "Ondoez
klownikoak"
Antzezlea: Virginia Imaz
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Haizea
Emakume Taldea

21 larunbata

11:00 KARATE

ERAKUSTALDIA

Kiroldegian

**13:00 NAHASTE-
BORRASTE**

Alebinak eta infantilak
Irteera Kimetz Elkarte

**13:30 NAHASTE-
BORRASTE**

14 urtetik gorakoentzat
Irteera Kimetz Elkarte
Antolatzailea: Kimetz
Elkartea

**15:00 IRRATSAIO
BEREZIA ZAZPIKI
IRRATIAN**

Gaia: Adierazpen
askatasuna

19:30-22:15 ZINEA

"Romeo y Julieta"

22 igandea

19:30-22:15 ZINEA

"Romeo y Julieta"

23 astelehena

22:15 ZINEA

"Romeo y Julieta"

26

osteguna

19:30 HITZALDIA

Gaia: "Emakumeen
partaidetza alardean"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Kimetz
Elkartea

27

ostirala

**10:00 GASTRONOMIA
AZOKA**

Plaza Handian

22:15 ZINEA

"En el amor y en la
guerra"

TXAN- DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
21	Bidasolo*	Bidasolo
22	Bidasolo*	Bidasolo
23	Etxeberria	Escala
24	Bidasolo	Bidasolo
25	Yudego	Yudego
26	Etxeberria	Zabaleta
27	Bidasolo	Anduaga

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

* Eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA

22 igandea Idarraga

ZIN



Zuzendaria: Baz Luhrmann
Antzezleak: Leonardo DiCaprio,
Claire Danes, John Leguizamo

Romeo y Julieta

Shakespeare idazle ingelesaren tragedia ezaguna ikuspuntu erabat ezberdin batetik azaltzen du filme honek. Bertsio erabat libre honetan, lengoia isabelinoa, hondartza abstraktoak, basamortu lehorrak, unibertso audiobisual aluzinantea, efektu digitalak, etab. nahasten dira. Kritiko batzuen ustez, maisulana da pelikula hau.

ALTZOLAKO JAIK

OSTIRALA, 20

19:00 Txupinazoa eta sardina jana trikitilariek lagunduta

23:00 Duo Plaentxiren jarduna

24:00 Dantzaldia Combi taldearekin

LARUNBATA, 21

11:00 Buruhandi eta erraldoien kalejira trikitilariek

12:30 Nagusientzako jolas herrikoiak

16:30 Bat-bateko mus txapelketa

23:00 Demaseko dantzaldia Gaubela taldearekin. Atsedendian "Erratzaren dantza"

IGANDEA, 22

11:00 Meza nagusia

12:00 Herri kirolak

13:00 Trikitilariek alaitutako buruhandi eta erraldoien kalejira

17:00 Haurrentzako Gin-kana

19:00 Zezentxoak eta poniak

23, ASTELEHENA

14:30 Txapliguak eta kanpai-jotzea

17:00 Buruhandiak eta erraldoiak

19:30 Salbea

20:00 San Juan arbola jartzea

22:30 San Juan suak

23:00 Dantzaldia Combi taldearekin

24, ASTEARTEA

06:00 Herriko etxeetako ateetan zuhaitz-adarak jartzea

11:00 San Juan eguneko meza nagusia

17:30 Pilota partiduak

22:00 Dantzaldia Combi taldearekin

ASTEAZKENA, 25

15:00 Trikitilariek alaitutako anaiarteko bazkaria

18:00 Zezentxoak eta poniak

19:00 Txokolate jana eta jai ei gurra

● "Ondoez klownikoak" Herriko Antzokian

Gaur, hilak 20, Haizea Emakume Taldeak eta Udal Ongizate Sailak elkarlanean antolatutako antzerki saioa izango da gaueko 22:15etan Herriko Antzokian. Virginia Imaz, Bergarako Oihulari Klown taldeko kideak "Ondoez klownikoak" izeneko lana eskainiko du. Bakarleri bezala arituko da antzezle bergararra, tartean barreak ere eragingo dituelarik.



● Alternatiba Demokratikoa Zazpiki irratian

Zazpiki irratiko Filoblibion irratsaioko arduradunek emisioak amaitu aurretik Adierazpen Askatasunaren aldeko irratsaioa prestatu dute larunbaterako, hilak 21, arratsaldeko 3etatik aurrera (FM 107.6). Irratsaioko arduradunen ustez, "HBko Mahai Nazionaleko kideen auziperatzea adierazpen askatasuna oztopatzea izan da". Horregatik Alternatiba Demokratikoari buruzko irratsaio berezia prestatuko dute.

● 1947an jaiotakoen urrezko eztaiak

1947an jaiotako 105 elgoibartar larunbatean elkartuko dira jaiotako zirenetik 50 urte pasatu direla ospatzeko. Urrezko eztaiak direla-eta, eguerdiko 12etan meza izango dute parrokan. Segidan bolatokiko parkean argazkia atera eta Baltasar elkartearen luntxa izango dute. Herri-Gain jatetxean bazkalduko dute eta Jaiki taldearekin nahi duenak dantza egiteko aukera izango du.

● Ikastolako guraso eta ikasleen arteko partidua

Ikastolako guraso eta ikasleek futbol partidua jokatuko dute, bihar, hilak 21, Mintxetako futbol zelaietan. Partidua 11etan hasiko zela iragarrita bazegoen ere, hasiera ordua aurreratu egin dute Nahaste-Borrastea dela eta. Hortaz, 10:30etan izango da partidua.

● Larunbatean, karate erakustaldia

Bihar, goizeko 11etan karate erakustaldia izango da Kiroldegian Olaizaga Karate Taldeak antolatuta. Erakustaldia goiz osoan zehar luzatuko da.

● Emakumeen partaidetza Alardean aztergai

Kimetz Elkarteak hitzaldia antolatu du datorren ostegunerako, hilak 24, Kultur Etxean arratsaldeko 7:30etatik aurrera. Gaia "Emakumeen partaidetza Alardean" izango da eta bideo bat ere emango dute gaia sakonago landu ahal izateko.

HONEKIN GATOZ!!!

ITALIA

HOTELAK - 3 eta 4★

8 egun **93.900 pta.**

PARIS, RHIN eta HERBEHEREAK

HOTELAK - 2, 3 eta 4★

8 egun **85.900 pta.**

INGALATERRA eta ESKOZIA

HOTELAK - 3 eta 4★

8 egun **115.900 pta.**

BUDAPEST eta PRAGA

HOTELAK - 3 eta 4★

8 egun **89.900 pta.**

PRAGA, VIENA eta BUDAPEST

HOTELAK - 3 eta 4★

8 egun **93.900 pta.**

OSLO, FIORDOAK eta GLAZIARRAK

HOTELAK - 3 eta 4★

8 egun **138.500 pta.**

ESKANDINABIA

HOTELAK - 3 eta 4★

10 egun **159.900 pta.**

ISTANBUL eta KAPADOZIA

HOTELAK - 3 eta 4★

8 egun **86.900 pta.**

MOSKU ETA SAN PETERSBURGO

HOTELAK - 4★

7/8 egun **119.800 pta.**

EL CAIRO eta NILOAN ZEHAR KRUZEROA

I. MAILAKO eta

ERDI-LUXUZKO HOTELAK

8 egun **139.400 pta.**

GURE DETAILAK:

-BIDAIA ASEGURUA

-EZKONGAIENTZAKO

OPARIA

-3. ADINEKOENTZAKO

BEHERAPENAK

-HIRUKO GELETAN

BEHERAPENAK

-UMEENTZAKO BEREZIAK

-SALNEURRI

GARANTIZATUAK

-IRTEERA

GARANTIZATUAK

BILBAO -EXPRESSEN

ESKEINTZA BAT DA

Dudarik gabe, hemendik aurrera, zatoz gure bulegora:



Foruen Plaza, 3 Elgoibar
Tel: 74 39 12

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Kanpin handia, familiarra salgai. ☎ 74 27 48 (7etatik aurrera)
- ◆ GAME BOY-rako Master Karateka eta Tetris salgai. Prezio interesgarria. ☎ 74 39 39
- ◆ Seat Malaga 1S GL BI-41 57 AW salgai. ☎ 19 51 04 (Marcel)
- ◆ Yamaha XJ-900 motorra salgai (13.000 km.). Egoera ezin hobean eta merke. ☎ 75 62 39/75 61 80 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Merkatu plazan liburutegi-kioskoa traspasatzen dut. ☎ 74 25 17 (Amaia)
- ◆ Aukera interesgarria: Benecchi Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. ☎ 74 03 92 (Dani)
- ◆ Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). ☎ 907 84 40 54 (Unai)
- ◆ Poliesterrezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. ☎ 19 13 07
- ◆ Mendaroko Irrintzi liburudenda traspasatzen dut. ☎ 75 61 53
- ◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak ☎ 74 12 85

◆ EROSI ◆

- ◆ Land Rover motza erosiko nuke. ☎ 74 41 77 (20:00-21:00)
- ◆ Keroseno estufa erosiko nuke. ☎ 74 04 59 (gauez)

Etxebizitzak

- ◆ Pisua daukat alokatzeko irailetik aurrera San Frantzisko kalean. Irakasleentzat aproposa. ☎ 74 34 24
- ◆ Alcoceber-en apartamentua alokatzen da uztaile eta irailean. ☎ 74 22 08
- ◆ Torreviejan apartamentua alokatzen dut. (Ekaina eta iraila). ☎ 74 24 50
- ◆ Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik. ☎ 74 12 13 (Carmen, gauez)
- ◆ Jakan apartamentua alokatzen da. (Membrilleras-en) ☎ 74 20 31
- ◆ Benidorm-en apartamentua alogeran. Hondartzako lehen ilaran. ☎ 74 20 31
- ◆ 3 logelako eta amoblaturako dagoen etxe bat alokatu nahi da, irailetik aurrera. ☎ 72 20 03 (Ainhua. Asteburuetan deitu)

Garajeak

- ◆ Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. ☎ 74 01 33
- ◆ Urasandin garaje itxia saltzen da. ☎ 74 08 63
- ◆ Garaje itxia salgai Arregitorren. ☎ 75 51 77
- ◆ Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. ☎ 74 31 07
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04 (20:00-22:00)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 909 41 73 52
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskararekin. ☎ 19 21 28 (Asun, asteburuetan)
- ◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo bestelako lanak egiteko. ☎ 74 18 68
- ◆ Ileapaintzaile titulodun neska eskaintzen da umeak zaintzeko. ☎ 74 22 91 (Cristina)
- ◆ Neska batek haurrak eta etxekolanak egingo lituzke. Euskalduna eta esperientziarekin. ☎ 74 31 88 (Amaia, Goizez)

Bestelakoak

- ◆ Riñonera beltz bat giltzekin eta diruarekin aurkitzen duenak Udalteixean utz dezala.
- ◆ Neska euskalduna behar dugu Deustun (Bilbo) pisua osatzeko. Prezio onean. ☎ 79 58 22 (Maia). ☎ 94 684 17 40 (Naiara)
- ◆ Salarako armairu bat, labadora eta kotxesila behar ditu Caritas-ek.
- ◆ Lorito berde batek ihes egin digu S. Inazio eta A. Arrillaga kaleen artean. Sarituko da. ☎ 74 36 07
- ◆ Santa Ana kaleko eta Aita Agirre plazako aparkalekuen artean betaurrekoak galdu nituen larunbat gauean. Norbaitek topatu baditu, deitu. ☎ 74 36 73 (Bego)

Agurrak

- ◆ Zorionak **Jokin Zubiaurreri** hilaren 16an urteak bete zituelako, 4. mailakoen partez.
- ◆ Zorionak **Ana Artetxeri** hilaren 10ean alaba izan zuelako. Ongietorri Maddi. Ainhua, Itsaso Pérez eta Estibaliz-en partez.
- ◆ Zorionak **Gorka Garaizabali** hilaren 15ean 14 urte bete zituelako. 14 tirakada gelako nesken partez. Zorionak potxolo!
- ◆ Agur bero bat aste honetan urteak bete dituzten **Oihana Ape, Johana Romera** eta **Kolditori**. 14 tirakada eta askoz gehiago bete ditzazuela zuen lagun ezkututaren partez.
- ◆ Zorionak **Maria Pazi** hilaren 19an urteak bete zituelako. Iskan-der eta Larraitzen partez.
- ◆ Zorionak **Oihana Apellanizi** hilaren 15ean 14 urte egin zituelako. Guraso eta ahizpa Leireren partez.

- ◆ Zorionak **Ortentxiri (Larraitz)** hilaren 17an bere urtebetzea izan zelako. Goenkaleko lagunaren partez. Aupa berritxu!
- ◆ Haizeakoen partez animo hilaren 22an **Aldas-era doazen 9 emakumei**. Tugal-era igoko zaretela ziur gaude, emakumeak gero eta helburu zailagoak lortzen ditugula erakutsiz. Animo eta gora!
- ◆ Zorionak **Peter Pani** azkenean Wendy lortu duzulako. Kanpanilaren partez.



- ◆ Zorionak **Iran-tzo-Mari!** Umeen aisialdia zuzentzen hasi zinenetik ez zara batere zahartu. Umeen ukitu majikoa jasoko zenuen. Ba al dakizu zenbat tanbor hots izan zen 24ko gauean? Ba, beste horrenbeste musu zuretzat. Amayi, Gibi, Txinarrin eta BARREneko sorginak eta "El rubio".




- ◆ Zorionak **Maria Garateri**, atzo, osteguna, urteak bete zituelako. Askoz gehiago bete ditzazula!! Alaba M. Luisa eta biloben partez.

Agurrak




- ◆ **Iban Ondar-zari** zorionak gurasoen izenean astelehenean 18 urte beteko dituelako.



- ◆ Zorionak **Imanol Gallegori** igandearen 14 urte beteko dituelako. Guraso eta arre-baren partez.




- ◆ **Ion Imanol**, Zorionak opa dizkizute zure bosgarren urtebetetzean guraso, anaia Asier, aitxita Cleto eta amona Nana eta Antoniak.



- ◆ Zorionak **Ion Larrañagari** gaur, ostirala, urteak betetzen dituelako, guraso eta anaia-aren partez.



- ◆ Zorionak **Ioritz Hidalgo** hilaren 23an urtebete egingo duelako. Gurasoen partez musu handi bat.



- ◆ Zorionak **Jose Ramon Rojori** hilaren 18an urteak bete zituelako. Ama, anai-arreba Angel eta Celia eta iloba Adrian eta Oihanaren partez.



- ◆ Zorionak **Josu Juaristiri** 20 urte bete zituelako hilaren 18an. Guraso eta arre-ba Edureren parte, bihotz-bihotzez. Aupa ganberro!



- ◆ **Larraitzi** zorionak hilaren 17an 11 urte bete dituelako, guraso eta anaia-aren partez

- ◆ Zorionak **Larraitz López** hilaren 17an 11 ortentxikada bete zituelako. Margarita batzuen partez.

Larrañaga



gida-

Izena ematerakoan %10eko
beherapena Gazte Txartelarekin

Santa Ana, 11 Tel: 74 10 11

ZELETA

Barazkiak

Ez diezazutela ziririk sartu!



JATORRIZKO



Egunero batu
eta ontziratzen dugu.

Erabateko kontrola
produkzio eta hautaketan.

BETIKO DENDETAN
AURKITUKO GAITUZU.

ZELETA BASERRIA - San Migel Auzoa - ELGOIBAR

COUPE



Hyundai COUPE

1.6i 16V 115cv
2.470.000 pta.

2.0i 16V 138cv
2.770.000 pta.



HYUNDAI

MENDARO AUTOAK

DONOSTIA
Zumalakarregi, 1
Tel: 31 22 00

ELGOIBAR
Olaso, 27
Tel: 74 32 00

EIBAR
Otaola, 27
Tel: 70 13 82

GIPUZKOARAKO BANATZAILE